

Lurraldeak eraldatzea ekonomia solidarioaren bidez

2015eko hauteskundeak, tokikoak eta autonomikoak



SARRERA

2015ean, hainbat erakundetarako hauteskundeak –tokikoak zein autonomikoak– egitekoak direnez estatu espainiarrean, REASetik –Ekonomia Alternatiboaren eta Solidarioaren Sareen Sarea— zenbait proposamen helarazi nahi dizkiegu alderdi politikoei, agente sozialei, eta, oro har, herritar guztiei; izan ere, proposamen horiek dira guk toki politikaren mailan proposatzen ditugunak lurraldeak eraldatzen jarraitzeko ekonomia solidarioaren irizpideak erabiliz.

Lurralde horietan, pertsonen, guztien ongiaren eta bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura egonen da ekonomia. Eta bertako garapen-ereduak berdintasunean eta elkartasunean oinarritutako gizarteak sortuko ditu, iraunkorrak bai gizartearen arloan, bai ingurumenarenean.

Oinarrizko printzipio horiek ardatz hartuta, dei egiten diegu tokiko eta erkidegoetako erakundeetan sartu nahi dituzten alderdiei eta hauteskunde-taldeei, beren egin ditzaten jarraian aipatzen diren proposamenak.

2

Erakundeak denon ongiari begira kudeatzea

Uste dugu erakundeek gizartearen ongia bultzatu behar dutela kudeaketan, eta erabilgarri dituzten baliabideekin, hartan oinarritutako irizpideak aintzat hartu behar dituztela neurri berriak ezartzeko orduan. Horrela funtzionatzen hasiz gero, beste politika publiko batzuk areagotuko dituen tresna eraginkorra bihurtu daiteke kudeaketa hori, eta, gainera, erakundeak demokratizatu eta herritarren zerbitzura jarriko ditu.

- Eremu errealak, praktikoak eta deszentralizatuak sustatzea, eta horietan herritarrek zein gizarte-erakundeek aukera izatea haiengan eragina izanen duten politika publikoak identifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko.
- Parte-hartzean oinarritutako auditoria publikoak egitea kudeaketa ekonomikoaren gainean, eta ziurtatzea gastua kontrolatzeko tresnak erabiliko direla, bai eta gardentasuna ere, kontratazio publiko guztietan.
- Parte-hartzean oinarritutako aurrekontu publikoak bultzatzea, herritarrek eta gizarte erakundeek aukera izan dezaten gastu eta inbertsioen lehentasunen eta edukien gaian erabakitzeke.
- Bultzatzea, politika, teknika eta aurrekontuen bidez, gizarte kohesioa eta elkartasuna sustatzeko lehenesten diren arloak: diru-sarrerak ziurtatzeko oinarrizko errentak, zerbitzu eta politika sozialak, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, eta abar.
- Erosketa publikoak egiteko orduan, neurriak garatzea gizarteari begira arduraz egin daitezkeen —gizarte, etika eta ingurumenaren gaineko irizpideak lehenetsiz—, bai eta erakundeek zerbitzuak eta produktuak kontratatzean nahiz erostean ere: gizarteratzea eta

laneratzea errazten duten klausula sozialak, ingurumen arloko iraunkortasuna eta hurbileko zirkuituak, laguntzea irabazi-asmorik gabeko entitateei eta ekonomia sozial eta solidariokoei, aukera-berdintasuneko politikak bultzatzea, bidezko merkataritza, lan-baldintza duinen bermea, eta abar.

- Gizartearen onura bultzatzea espekulazioari aurre eginez, bai landalurrean, bai behar baino gutxiago erabiltzen diren hiriguneetan, ekonomia sozial eta komunitarioaren jarduera garatzeko.
- Kontsumo arduratsuaren eta hurbileko kontsumoaren aldeko apustua egitea ekimen publikotik, banaketa- eta ekoizpen-enpresa handiei aurre eginez.
- Parte-hartzea, erakunde kide gisa, finantza etikoen kooperatiba sozialetan, eta halako zerbitzuen erabilera lehenestea ohiko bankuen aurretik.
- Parte-hartzea, erakunde kide gisa, energia berriztagarriak sortzen eta merkaturatzen dituzten kooperatiba sozialetan, eta halako zerbitzuen erabilera lehenestea dirua irabaztea helburu duten multinazionalen eta enpresa pribatuen aurretik.
- Udalerriek bat egitea elikadura-burujabetzaren aldeko gutunarekin.

Pertsoneri eta denon ongiari begira lan egiten duen ekonomia berri bat bultzatzea

Erakunde publikoek lurralde bateko jarduera ekonomikoa eraldatzen lagundu dezakete, ekintza zuzenak eta zeharkakoak eginez, jarduera hori birkokatu eta ekonomia sozial eta solidarioetan oinarrituta aritu dadin. Horrela, estrategia eta jardunbide alternatiboak bultzatu nahi dira tokiko garapenean.

- Ekonomia sozial eta solidarioaren egitura soziala indartzea, ekoizpen-eredua aldatuz balio alternatiboak lantzen dituen kudeaketa-eredu berri bat sortzeko, eta enpleguaren sorrera helburu sozial izanik. Horretarako, honako zerbitzu bereizgarri hauek garatuko dira:
 - Eremu fisikoak sortzea edo eraldatzea ekonomia sozial eta solidarioaren enpresentzat: udal lokalak uztea, coworking guneak, enpresa-barrutiak...
 - Aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak ekimen ekonomiko alternatiboentzat.
 - Erakundeen parte-hartzea abal-funtsak edo finantza-laguntzak sortzeko, edo bitartekaritza finantza etikoen entitateekin, enpresak sortzeko edo enpresak garatzeko.
 - Toki eskumeneko pizgarri fiskalak ekimen ekonomiko sozial eta solidarioentzat.
 - Enpresa berriak sortzea eta beste batzuk berritzea ekonomia sozial eta solidarioaren formulen bidez lan egin dezaten.
 - Ekonomia solidarioaren arloko auditoria soziala aitortzea eta bultzatzea.

- Oso ez-egonkorrak diren sektoreak bultzatzea enplegua bultzatuz ekonomia sozial eta solidarioaren enpresetan (zainketak, hondakinen kudeaketa).
- Jarduera ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzea denon ondasunen eta zerbitzuen kudeaketa komunitarioa eta kooperatiboa bultzatuz.
- Eremu publikoen erabilera-lagapena merkatu sozialeko feriak eta ekonomia sozial eta solidarioaren bestelako ekitaldi batzuk egiteko.
- Lizentzia askeak eta software librea bultzatzea.
- Tokiko ekonomiaren zirkuituak bultzatzea eta sustatzea
 - Ekonomia sozial eta solidarioaren feriak bultzatzea.
 - Hurbileko elikagaien azokak berreskuratzea eta bultzatzea.
 - Tokiko monetak sortzea eta bultzatzea.
 - Berrikuntza bultzatzea elkarlanean, kooperatiba-lanean eta kolektiboan oinarritutako kontsumo.
 - Monetarik gabeko trukeak bultzatu eta garatzea (denbora-bankuak, truke-merkatuak...).
 - Truke-zerbitzuak zabaltzea garbiguneetan.
- Herritarren sentsibilizazioa eta zenbait agente sozialen kontzientziazioa garatzeko kanpainak egitea ekonomia sozial eta solidarioari lotutako gaitan; modu horretan, alternatiben berri zabaldu eta sentsibilizazio-lana egingen da paradigma ekonomikoa aldatu beharraz.
 - Merkatu sozialak eta kontsumo arduratsua bultzatzeko kanpainak.
 - Finantza etikoak eta solidarioak bultzatzea eta haiei buruzko sentsibilizazioa lantzea.
 - Kontsumo-kooperatibak bultzatzeko kanpainak (energia, elikadura, osasuna, zerbitzuak, nekazaritza ekologikoa...).
 - Erakundeetako langile teknikariak eta politikariak sentsibilizatzea eta prestatzea ekonomia solidarioaren gaiak, eta gidak egitea politika publikoak bultzatzeko.
 - Gidak egitea ekonomia solidarioaren arloaren barnean lurraldean egin daitezkeen proiektuak eta enpresa berriak ikusarazteko.
 - Kontsumo arduratsuaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko kanpainak arlo askotan, hala nola hezkuntzako esparruan, auzokideen mugimenduetan, kontsumitzaileen elkarteetan, emakumeen elkarteetan, elkarte-egituretan...

Gure lurraldea zaintzea eta ingurumen-iraunkortasuna bultzatzea

Ekonomia solidarioak egungo paradigma aldatu nahi du, bizitzaren iraunkortasuna jarduera ekonomikoaren ardatz gisa hartuko duena. Horretarako, besteak beste, trantsizio-ekimenak bultzatuko dira, eta ingurumen-iraunkortasunean bultzatutako politika publikoak garatuko dira, lurra bera eta landa-ingurunea zainduko dituztenak.

- Ingurumen-heziketako programak bultzatzea, oro har, herritar guztientzat, eta, bereziki, haur eta gazteentzat.
- Kontsumoa gutxituko duten politikak bultzatzea, eta eraginkorragoak izatea energiaren erabileran, betiere subiranotasun energetikoari begira.
 - Auditoria energetiko bat bultzatzea lurraldean, kontsumoa arrazionalizatzeko plan bat garatuz, etxeetan, industrian, baita alor publikoan ere.
 - Energia berriztagarrien arloan, inbertsio komunitarioko proiektuak bultzatzea, baita autokontsumoa ere, laguntza finantzarioa, teknikoa eta juridikoa eskainiz.
 - Kontratazio publikoari dagokionez, energia garbiak eta berriztagarriak kontratatzeko konpromisoa.
 - Argizatze-sistema eraginkorrak.
 - Mugikortasunaren arloko politika iraunkorrak.
 - Laguntzeko neurriak eta hobariak eraikinak zaharberritzeko.
- “HONDAKINIK EZ” xedea izanen duten politikak ezartzea, besteak beste, honako neurri hauekin:
 - Gaikako bilketa zorrotzagoa egitea, hondakinak murriztuz, konposta eginez, hondakinak berrerabiliz eta birziklatuz, baita hondakinen sorreraren araberako ordainketa ere.
 - Hondakinak eta bilgarriak gutxitzea merkataritzaren arloan.
 - Ekonomia sozial eta solidarioaren arloko enpresak lehenestea hondakinak kudeatzearen arloan.
- Onartzea ura denon ondasun bat dela, eta hori izatea oinarri egin beharreko kudeaketa publikoan, ingurumen-iraunkortasuna zainduz:
 - Bertan behera uztea privatizazio-prozesuak uraren kudeaketan.
 - Bultzatzea eta zaintzea uraren horniketa- eta arazte-sare eraginkor bat.
 - Baliabide hidrikoen kudeaketa iraunkorra.

- Lurraldea zainduko eta babestuko duten politikak bultzatzea.
 - Lurraren erabilerari dagokionez, eredu iraunkorragoetan eta espekulatiboak ez diren ereduetan oinarritutako plan- eta planifikatze-baliabideak erabiltzea.
 - Baso-kudeaketa egokia, belardiak zaintzea eta lehengoratztea, nekazaritza ekologikoa, ekosistemak baliotan jartzea.
 - Hiri-ondasun komunak bultzatzea eta zaintzea: baratze komunitarioak, eremu berdeak hiriaren inguruan, lur-bankuak...
 - Transgenikorik gabeko lurralde izendatzea.
- Produktu ekologikoak, hurbilekoak eta bidezko merkataritzakoak banatzea, merkaturatzea eta kontsumitzea bultzatzen dituzten politikak sustatzea.

Argibide gehiago eta harremana

**REAS NAFARROA – EKONOMIA ALTERNATIBOAREN ETA
SOLIDARIOAREN SAREA**

Valero Casasnovas eta Carlos Rey

Telefonoa: 948 13 64 62

Posta: secretaria@reasnet.com

www.economiasolidaria.org